Donostian, 2022ko abenduaren 16an.

En San Sebastián, a 16 de diciembre de 2022.

**BILTZEN DIRA:**

José Ignacio Asensio Bazterra jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko foru diputatua, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi Antonio Aiz Salazar jauna eta Añarbeko Uren Mankomunitateko presidentea, Jaione Hervás Sáez de Arregui andrea.

**SE REUNEN:**

El Sr. José Ignacio Asensio Bazterra Diputado Foral de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, el Sr. D. Antonio Aiz Salazar, Director General de la Agencia Vasca del Agua y la Sra. Dña. Jaione Hervás Sáez de Arregui, Presidenta de la Mancomunidad Municipal de Aguas del Embalse del Río Añarbe.

**ESKU HARTU DUTE:**

Lehenak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatua gisa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren legezko ordezkari gisa, Diputatuen Kontseiluak 2021eko abenduaren 14ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz baimenduta.

Bigarrenak, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikuluak ematen dizkion eskumenak betez.

**INTERVIENEN:**

El primero de ellos, en su condición de diputado foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, en representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, autorizado expresamente para este acto por acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral en sesión celebrada el 14 de diciembre de 2021.

El segundo, en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de sus Estatutos.

Hirugarrenak, Mankomunitatearen Estatutuetako artikuluak erakundea ordezkatzeko ematen dion legezko gaitasuna betez, eta Mankomunitatearen Batzarrak, 2021eko abenduaren 17an egindako bilkuran hartutako erabakiari esker.

La tercera, en ejercicio de la capacidad legal de representación de la Mancomunidad que le confieren sus Estatutos y en virtud de acuerdo adoptado por la Junta de la Mancomunidad en sesión celebrada el 17 de diciembre de 2021.

**ADIERAZTEN DUTE:**

**EXPONEN:**

**LEHENENGOA.-** 2021eko abenduaren 20an, Uraren Euskal Agentziak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Añarbeko Uren Mankomunitateak lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten “Donostiako Anoeta eremuko saneamenduaren proiektu eguneratuari dagozkion obrak, 1. fasea” egikaritzeko.

**PRIMERO.-** Que con fecha 20 de diciembre de 2021 la Agencia Vasca del Agua, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Mancomunidad Municipal de Aguas del Embalse del Río Añarbe suscribieron un convenio de colaboración para la ejecución de las obras correspondientes al “Proyecto actualizado del saneamiento de la zona de Anoeta en San Sebastián. Fase 1”.

**BIGARRENA.-** Aipatu hitzarmenaren arabera, Uraren Euskal Agentziak, bere aldetik, proiektuan jasotako obrak kontratatzeko benetako kostuen % 34 finantzatu eta ordaintzeko konpromisoa hartzen zuen, besteak beste.

**SEGUNDO.-** Que en virtud del citado convenio, la Agencia Vasca del Agua se comprometía, entre otros, a financiar y abonar el 34% de los costes efectivos de la contratación de las obras incluidas en el proyecto.

**HIRUGARRENA.-** Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere aldetik, proiektuan jasotako obrak kontratatzeko benetako kostuen % 34 finantzatu eta ordaintzeko konpromisoa hartzen zuen, besteak beste.

**TERCERO.-** Por su parte, la Diputación Foral de Gipuzkoa se comprometía, entre otros, a financiar y abonar el 33% de los costes efectivos de la contratación de las obras incluidas en el proyecto.

Konpromiso horiek betetzeko xedearekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak 220.000 euro ordaindu zizkion Uraren Euskal Agentziari 2021eko ekitaldiaren kontura, ekitaldi horretan azkenean gauzatu ez ziren jarduketetarako.

En cumplimiento de dichos compromisos, la Diputación Foral de Gipuzkoa abonó a la Agencia Vasca del Agua el importe de 220.000 euros a cargo del ejercicio de 2021 para las actuaciones que finalmente no llegaron a ejecutarse en dicho ejercicio.

**LAUGARRENA.-** Halaber, Añarbeko Uren Mankomunitateak, bere “Sociedad de Gestión Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAr”en bitartez, hitzarmenaren xede den proiektuan sartutako obren benetako kostuen % 33 finantzatzeko konpromisoa hartzen zuen, besteak beste.

**CUARTO.-** Asimismo, la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, a través de su Sociedad de Gestión “Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.”, se comprometía, entre otros, a financiar el 33% de los costes efectivos de las obras incluidas en el proyecto objeto del convenio.

**BOSGARRENA.-** Hitzarmen horretan hartutako konpromisoak betetze aldera, Uraren Euskal Agentziak kontratatzailearen profilean argitaratu zuen, 2021eko abenduaren 16an, DONOSTIAKO ANOETA EREMUKO SANEAMENDU-PROIEKTUAREN 1. FASEKO obren lizitazio-iragarkia 4.403.889,95 euroko zenbatekoagatik (BEZa barne).

**QUINTO.-** Con objeto de dar cumplimiento a los compromisos adquiridos en dicho convenio, la Agencia Vasca del Agua publicó en el Perfil del Contratante el 16 de diciembre de 2021 el anuncio de licitación de las obras de “PROYECTO DE SANEAMIENTO DE LA ZONA DE ANOETA EN SAN SEBASTIÁN, FASE 1” por un importe de 4.403.889,95 € (IVA incluido).

SANEAMIENTO ANOETA ABEEk 2022ko urtarrilaren 21ean aurkeztu zuen lizitazio-eskaintza lizitazio-aurrekontuaren % 4,40ko beherapenarekin, une hartan zeuden merkatuko prezio eta baldintzetan oinarrituta. 2022ko martxoaren 9an, obra-

La UTE SANEAMIENTO ANOETA presentó la oferta de licitación el 21 de enero de 2022 con un 4,40% de baja sobre el presupuesto de licitación, basando la misma en los precios y condiciones de mercado existentes en ese momento. El 9 de marzo

kontratua SANEAMIENTO ANOETA ABEEri esleitu zitzaion, eta 2022ko apirilaren 13an sinatu zen.

2022ko maiatzaren 25ean, SANEAMIENTO ANOETA ABEEk kontratua suntsiarazteko eskaera aurkeztu zuen, alegatuz desoreka ekonomiko handia sortu zela kontratuaren prestazioen artean, eta, beraz, kontratuaren prezioa zaharkituta geratu zela eta ezin dela gauzatu adjudikatu zen baldintzetan.

2022ko ekainaren 3an, obra-zuzendaritzak txostena egin zuen, eta eskaera justifikatutzat jo zuen.

Ondorioz, 2022ko ekainaren 9an, bi alderdiek kontratua suntsiaraztea erabaki zuten, baldintza ekonomikoek aldaketa handia izan dutelako, eta, ondorioz, ezinezkoa delako kontratua hasieran itundutako baldintza ekonomikoetan betearaztea, eta, hala eginez gero, kalte ekonomiko larria eragingo litzatekeelako.

**SEIGARRENA.-** Kontratuaren prezioak merkatuaren egoerara egokitzeko, eta, hartara, kontratua gauzatzea bideragarria dela bermatzeko, Uraren Euskal Agentziak DONOSTIAKO ANOETA EREMUKO SANEAMENDUAREN PROIEKTU EGUNERATUA, 1. FASEA

de 2022, se adjudicó el contrato de las obras a UTE SANEAMIENTO ANOETA, firmándose éste el 13 de abril de 2022.

El 25 de mayo de 2022, la UTE SANEAMIENTO ANOETA presentó solicitud de resolución del contrato, alegando que se había generado un fuerte desequilibrio económico entre las prestaciones del contrato, por lo que el precio del mismo había quedado obsoleto e impedía que pueda ejecutarse en los términos en los que fue adjudicado.

El 3 de junio de 2022 la Dirección de Obra emitió informe en el que consideró justificada la solicitud.

En consecuencia, el 9 de junio de 2022 ambas partes acordaron la resolución del contrato, puesto que los términos económicos han sufrido una alteración de tal magnitud que se hace imposible ejecutarlo en las condiciones económicas inicialmente pactadas y, en caso de que así se ejecutara, este hecho provocaría un grave quebranto económico.

**SEXTO.-** Para adecuar los precios del contrato a la situación del mercado, de manera que se garantizara la viabilidad de su ejecución, la Agencia Vasca del Agua procedió a la revisión del “PROYECTO ACTUALIZADO DEL SANEAMIENTO DE LA ZONA DE ANOETA EN SAN

berrikusi zuen. Berrikuspen horren ondoren, lizitazio-aurrekontua nabarmen handitu zela egiaztatu zen (6.748.781,79 €, BEZa barne), eta, beraz, beharrezkotzat jo zen lankidetza-hitzarmenaren aldaketa bat sinatzea, alderdi sinatzaileek kostuaren igoera hori finantzatzeko konpromisoa har zezaten.

SEBASTIAN. FASE 1”. Tras dicha revisión, se constató un incremento significativo del presupuesto de licitación, que ascendía a 6.748.781,79 €, IVA incluido, de manera que se estimaba necesaria la firma de una modificación al convenio de colaboración en la que las partes firmantes se comprometieran a la financiación de este incremento de coste.

**ZAZPIGARRENA.-** Hitzarmenaren aldaketa hori onartzeko prozesuan, Añarbeko Uren Mankomunitateak, adostutako finantzaketari aurre egitea ezinezkoa izateaz gain, hitzarmenaren xede den proiektuak Donostiako Udalak berriki azaldutako udal-saneamenduaren eskemarekin izan ditzakeen bateraezintasunak adierazi ditu, hitzarmena tresna bideraezina eta bete ezina izanik.

**SÉPTIMO.-** Que en el curso de la aprobación de la citada modificación del convenio, la Mancomunidad de Aguas del Añarbe manifiesta, además de su imposibilidad de hacer frente la financiación acordada, la existencia de posibles incompatibilidades del proyecto objeto del convenio con el esquema de saneamiento municipal recientemente expuesto por el Ayuntamiento de Donostia, resultando el convenio en un instrumento inviable y de imposible cumplimiento.

**ZORTZIGARRENA.-** Jarraipen Batzordeak, 2022ko urriaren 13an bilduta, komenigarritzat jo zuen hitzarmena indarrik gabe uztea, eta aho batez erabaki zuen hitzarmenaren suntsiarazpena proposatzea, bai eta hori fomalizatzeko alderdi sinatzaileek egin beharreko izapideak bideratzea ere.

**OCTAVO.-** Que la Comisión de seguimiento, reunida el 13 de octubre de 2022, consideró conveniente dejar sin efecto el convenio, y acordó por unanimidad proponer su resolución, así como dar curso a los trámites correspondientes para su formalización por las partes firmantes.

Azaldutako guztiagatik,

Por todo lo expuesto,

**ADOSTEN DUTE**

2021eko abenduaren 20an alderdiak sinatutako “Donostiako Anoeta eremuko saneamenduaren proiektu eguneratuari dagozkion obrak, 1. fasea” egikaritzeko lankidetza-hitzarmena suntsiaraztea eta azkendu dela deklaratzea.

Eta ezarritakoari jarraituz eta ezarritako horrekin ados agertuz, bildu direnek akordioaren hiru ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako leku eta egunean.

**ACUERDAN**

Resolver el convenio suscrito por las tres partes el 20 de diciembre de 2021 para la ejecución de las obras correspondientes al “Proyecto actualizado del saneamiento de la zona de Anoeta en San Sebastián. Fase 1”, declarando su extinción.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman las partes comparecientes, por triplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

*INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO FORU DIPUTATUA / EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS*

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

JOSE IGNACIO ASENSIO BAZTERRA - 15987473N
2023.01.24 11:27:06 +01'00'

JOSÉ IGNACIO ASENSIO BAZTERRA

*URAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARI NAGUSIA / EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA*

ANTONIO AIZ SALAZAR - 72715102G

Firmado digitalmente por ANTONIO AIZ SALAZAR - 72715102G
Fecha: 2023.01.25 08:39:06 +01'00'

ANTONIO AIZ SALAZAR

*AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEKO PRESIDENTEA / LA PRESIDENTA DE LA MANCOMUNIDAD DE AGUAS DEL AÑARBE*

15999088N MIREN JAIONE HERVAS (R: Q2000533F)

Firmado digitalmente por 15999088N MIREN JAIONE HERVAS (R: Q2000533F)
Fecha: 2022.12.22 10:10:59 +01'00'

JAIONE HERVÁS SÁEZ DE ARREGUI